

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2012ko urriaren 3a. IX. urtea. 2.409. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Antonio Alustiza Artzaina

«Artzainak eta txakurrak segituan sumatzen dugu bestearen aldartea»

Aresoarrak hirugarrenez lortu du Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa irabaztea; 'T'tiki' txakurra izan du bidelagun azken bederlatzi urteetan

Datorren urterako 'T'tiki' ez badago lehiatzeko moduan, bere alabarekin, 'Bat' -ekin ariko da; bere irudipena da, hala ere, alabarekin ez dituela emaitza berak lortuko **o5**



Antonio Alustiza eta T'tiki txakurra, atzo, Areson; T'tiki-ren alabarekin, Bat-ekin ari da entrenatzen orain. I.T.

Ekonomia feminista landuko dute Tolosan, asteburu honetan hasita

Yayo Herrero izango da ostiralean eta larunbatean 'Ekonomia feministatik jar dezagun krisia hankaz gora' jardunaldietan; azaroaren 17an izango dute jarraipena **o2**

Aresoko uso postuetako batzuk esleitu gabe geratu dira lehen aldiz

Iaz 17.059 euro bildu zituzten egindako enkanteetan eta aurten 8.000 bat; udalak beste aukera bat emango du eta ostirala arte egin ahal izango dira eskaintzak **o6**

Amaia Doyague eta Mari Angeles Zubillaga
Mintzalaguna egitasmoa kideak

«Euskara gure hizkuntza denez, gure kulturaren oinarri eta ardatza ere bada»

Galtzaundi euskara taldeak hirugarrenez antolatu du Mintzalaguna egitasmoa euskara normalizatu asmoz

Elkarrizketa o7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Hitzaren harpidedunentzat

30 €

Udazken honetan jantzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzako aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZaren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behea



Irudia ◊ Tolosa



HODEI, SANTA KLARAN KANTUAN

Pasa den larunbatean, David Azurzak zuzentzen duen emakumezkoen Hodei abesbatzak Santa Klara elizan abestu zuen Felipe Gorritiren *Meza Re Maiorean*, Gerardo Rifon organistarekin. Mezetarako obra hau, 1889. urtean idatzi zuen Gorritik, Santa Mariako organo berriaren inaugurazio ekitaldirako. Larunbateko emanaldiarekin, bezar, Santa Klara Komentuaren 400. urteurrena eta, era berean, Hodei Truk abesbatzaren 25. urteurrena ospatu zituzten. HITZA

Irudia ◊ Tolosa



3.000 EURO URTEA OSPATZEKO

Tolosa & Co merkatarien eta ostalarien elkartearen Visa txartelak urtea bete du, eta horretarako, urriaren eta azaroaren martxan izango den kanpaina aurkeztu dute. 3.000 euroko ordainsariaren zozketa da jarduera nagusia, eta Visarekin ordaintzen duten berezoak zuzenean sartuko dira zozketan. Era berean, 50 afari eta 20 euroko 150 kontsumizio ere jokoan izango dira, Tolosa & Co elkarteak jabetxe, taberna eta kafetegietan erabiltzeko. Javier Garro, Juanjo Ruiz eta Olga Artola izan ziren agerraldian. LUURKIZU

Feminismoaren begietatik krisia iraultzen saiatuko dira Tolosan

Ekonomia feministari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Urola Garaia-Tolosako Jabekuntza Eskolak

Itzea Urkizu

Krisi ekonomikoren inguruan egin ohi diren analisiak «asmo txarrekoak» direla eta, sistemaren krisiari bestelako teoria batzuetatik aurre egiteko *Ekonomia feministatik jar dezagun krisia hankaz gora* jardunaldiak antolatu ditu Urola Garaia-Tolosako Jabekuntza Eskolak; ekonomia feministatik egoerari buelta ematen saiatuko dira, beraz.

Ibai Iriarte Tolosako alkatea eta Agurtza Zubero Tolosako Udaleko Berdintasun teknikariaz gain, Urretxuko alkate Oihane Zabaleta eta Aurora Iturrioz Berdintasun teknikaria ere izan ziren aurkezpenean, eta guztiek, emakumezkoen egoera krisian are larriagoa dela nabarmendu zuten.

Besteak beste, egoera honen sakoneko arrazoi moduan, generoen arteko hierarkia nabarmendu dute antolatzaileek: «Gaur egungo gizartean, oraindik era desberdin eta hierarkikoan sozializatzen gara», azaldu zuen Oihane Zabaletak.

Iritzi hau abiapuntu hartuta, ekonomia feminista ardatz nagusi izango duten jardunaldiak an-



Agurtza Zubero, Oihane Zabaleta, Ibai Iriarte eta Aurora Iturrioz, agerraldian. HITZA

tolatu dituzte. Tolosan eta Zumarragan izango dira saioak, eta ostiral honetan hasi eta azaroaren 17an amaituko dira.

Irtenbideak eman baino, aipaturikoaz eztabaidatu eta hausnartzea izango da saioen helburua. Tolosan, kultur etxean izango dira jarduerak; bata Ecologistas en Acción taldeko Yayo Herreroren hitzaldi-etzabai- izango da, datorren ostiralean nahiz larunbatean. Azkenik, Emakumeen Denbora Banku taldeen egunpasa egingo dute, datorren azaroaren 17an.

Izena emateko, *jabekuntzaeskola@gmail.com* helbidera idatz daiteke, edo 943 67 03 83 telefonora deitu.

«Bereizkeriari aurre egiteko»
Urola Garaiak eta Tolosak elkarlanean sortutakoa da jabekuntza

eskola, eta emakumeak hezea du helburu nagusi, genero honetako herritarrek «bigarren mailako herritar izaten jarraitzen» dutela uste baitute eskolako sustatzaileek.

Horrela beraz, «bereizkeria sortzen duen sozializazio prozesu honi aurre egin nahi dio» Urola Garaia-Tolosako Jabekuntza Eskolak.

◊ tolosa@hitza.info

↓ **Egitaraua Tolosan**

URRIAK 5, OSTIRALA

■ **16:00etatik 20:00etara, kultur etxean.** Yayo Herrero: *Proposamen ekofeministak, zorrez jositako sistema batentzat.*

Ecologistas en Acción taldeko koordinatzaileak begirada ekologistaren eta feministaren arteko topaketak beste paradigma bat sortzen lagun dezakeela uste du, betiere, bizimodu duin eta naturarekin bateragarri bat ardatz direla.

URRIAK 6, LARUNBATA

■ **10:00etatik 14:00etara, kultur etxean.** Yayo Herreroren saioa.

AZAROAK 17, LARUNBATA

■ **11:00etatik aurrera, kultur etxean.** Emakumeen Denbora Banku taldeen Egun pasa topaketa. Dirurik gabe, baliabideak eta gaitasunak elkarbanatu daitezkeela erakutsiko dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosa CFren talde nagusiko jokariak eta prestatzaileak, Berazubiko zelaietan, entrenamendu bat hasi aurretik. I.G.L.

Irabazteko meritua egitea helburu

Iaz hirugarren mailarako igoera fasea jokatetik gertu izan eta gero, asmo horrekin hasi du aurten ere denboraldia Tolosa CFk

Iñigo Dominguez da entrenatzaile berria, Realean Lilloren laguntzailea izandakoa

Imanol Garcia Landa

Tolosa CFren talde nagusia erregional ohorezko mailan dago. Iazko denboraldian igoerako promozioa jokatzeke zorian izan zen, eta aurten berritua borrokatu nahi du hirugarren mailara igo ahal izateko. Horretarako etxeko talde prestatzaile dute: entrenatzaile gisa Iñigo Dominguez ari da, bere laguntzaileak Jose Manuel Odriozola eta Iñaki Mujika dira, Oscar Galindo da atezainen entrenatzailea, Javi Fernandino masajista eta Jose Manuel Tobias ordezkarria. Justo Lillo aurrendenboraldian laguntzen aritu da eta orain kadete mailako lehen taldea entrenatzen ari da. Dominguezek garbi du zer lortu nahi duten: «Partida guztietan garaipena merezi izatea».

Dominguez iaz ere Tolosa CFn izan zen, baina beste ardura batzuekin: «Jose Manuel Odriozolak deitu zidan denboraldiaren hasieran alebin mailako beste talde bat atera behar zutela, eta horiek entrenatzerako animatuko ote nintzen galdetzeko». Nire lehenengo esperientzia 10-11 urteko gaztetxoekin izan zen, eta oso gustura aritu nintzen. Denboraldia aurrera zihoala, Txema Serenak eskatu zion behe mailako taldeen metodologia eta entrenatzaileen formazioa eramatea. Uda honetan klubak erabaki zuen entrenatzailez aldatzea, etxe barru-

ra begiratu zuten eta Dominguez galdegintza lehen taldearen ardura hartzea. «Ni, hemendik nabilen bitartean, Tolosari lagunduko diot klubak egokien ikusten duen moduan», dio.

Hainbat jokari berri ditu aurtengo taldeak: Ruben Garcia, atezaina, Idiazabaletik etorri da; Borja Gomez eta Mikel Lopetegui, Realeko jubenil mailako taldeak; David Imaz, Zarautzetik; eta Gorka Blanco, aurretik Tolosan aritua eta aurten Lagun Onak taldeak etorritakoa. Egun talde nagusia dauden zenbait jokari aurretik Dominguezek entrenatu zituen kadete mailan. Tolosaldekoak eta Goierrikoak dira jokariak, eta zaharrenak 28 urte ditu.

Igoera, jomugan

Aurreko denboraldiko azken jardunaldia ez da oroimen gozokoa. Tolosak bere esku zuen igoera fasean sartzeko postua lortzea, baina Hondarribiaren aurka berdindu eta Pasaia eskuratu zuen postua. Talde hori, gainera, hirugarren mailara igo zen, eta, beraz, kolpea bikoitza izan zen.

Denboraldian zehar «igoera hitza nahitaez atera egingo da», dio Dominguezek. «Niri, helburu bezala, igotzea baino, igotzeko meritua egitea gustatuko litzaidake». Futbola askotan zoriarekin lotuta dagoela dio Dominguezek, «batzuetan gehiegi», eta berak meritua bere alde izatea nahi

du, nahiz eta askotan bizitza den «gure ordez erabakitzen duena». Tolosako entrenatzaileak partida guztietan garaipena merezi izatea nahi du: «Gure esku dagoen guztia egitea, zozketara ahal dugun txartel kopuru handienarekin joatea».

Denboraldiaren herenaren ondoren, igoeraren borrokan zein talde izango diren zehaztuko direla esan du Dominguezek. Aurretik izen batzuk ere aipatu daitezkeela dio: «Berio eta Hernani goian izango dira ziurrenik. Oiarzun ere, iaz bezala, goiko postuetan egon daiteke».

Jokatzeke moduz galdetuta, ez du sistema jakin baten inguruan hitz egiten Dominguezek: «Jokalarien ahalmena errespetatzea da lehen gauza, ez da beraien senaren aurka joan behar. Hortik aurrera, ahal den ondoen jokatzea; edozein kirolletan, ondo jokatzen baduzu, garaipenetik gertuago egongo zara».

Bosgarren postuan

Lehenengo hiru partiden ondoren, sei puntu ditu Tolosak eta bosgarren postuan dago. Lehenengo partidaren Berioaren aurka 3-1 irabazi zuen etxean. Dominguezek azaldu duenez, «irabazi egin genuen, eta hori garrantzitsua da. Partida berezia izan zen, oso ondo jokatzen duen eta jokalarien kon-

kalkua modu berezi batean duen talde baten aurka aritu ginen. Partidak gorabeherak izan zituen, eta alde batera edo bestera egin ahal izan zuen».

Bigarrenengoan, Hondarribiaren aurka 2-1 galdu zuten. «Hobeagoak ginen, eta aukera asko izan genituen, baina atsedendaldira 2-1 iritsi ginen», dio entrenatzaileak. «Gero, bigarren zatiko lehen minutuak oso onak izan ziren, baina partida aldrebestu egin zen eta aukeraren bat izan arren ez genuen sartu golik».

Asteburu honetan Lagun Onak taldeari 2-0 irabazi diote. «Partida guztian gailendu gara. Bigarren zatian lehenengoan baino errazago jolastu genuen eta bigarren gola lehenengo sartu behar izan genuen», esan du. Dominguezek dienez, entrenamenduak eta partidak ikusita, taldea «aurrera doa».

Eskarmetudun prestatzailea

Gaztea izan arren, Iñigo Dominguez tolosarrak dagoeneko badu eskarmetua entrenatzaile postuan. 19 urterekin hasi zen entrenatzen eta Tolosan hasi zen, gainera, kadete mailako taldeekin hiru urtez arituta. Nazional mailako entrenatzaile titulua eskuratutako ondoren, Realean hasi zen lanean eta bertan izan zen zazpi urtez. Kadete mailako taldea bi urtez entrenatu zuen eta gero beste hiru urtez, bere sorreratik, emakumezkoen taldea. Bien bitartean, idazkaritza teknikoan ere aritu zen.

Emakumezkoen taldea utzi eta idazkaritza teknikoan hasi zen lanean osoz. Juanma Lillo tolosarra entrenatzaile hasi zenean, Dominguez bere laguntzaile gisa hasi zen, eta Lillo Almeriara joaterakoan, harekin egin zuen bidea. Ez du aurretik erregionaleko ohorezko mailan entrenatu, eta maila handiagotatu aritu bada ere, berak argi du: «Ilusioa gauzetan dago, baina ahalmena izan behar da ere ilusiozatzeko eta garaian garaian tokatzen zaizunarekin gozatzeko».

Berazubira jendea joatea zaila dela dio: «Aisialdirako eskaintza gero eta handiagoa da. Gainera, telebista asteburu guztian duzu futbola ikusteko aukera. Horrek guztiak zaildu egiten du zaletuak Berazubira joatea». Baina ez du esperantza galtzen: «Ea lortzen dugun zaletuak erakartzea».

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe barenko langile-interna.** Amezketa etxe batean, interna moduan lana egingo duen emakume euskalduna behar dugu. Interesatuek, deitu 653 721858 telefono zenbakira.



Villabonako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, besteak beste, Villabonako Aldude kalea 3 - behean dagoen Jubilatuen Etxeko aritegi-jangelaen ustiaketa kontratatzeke baldintza administratibo berezien eta baldintza teknikoan agiria onartzea erabaki zuen.

- Baldintza ekonomikoak.** Kanona. Esleipendunak gutxienez 150,00 €urotako kanona ordaindu beharko dio hilero Udalari.
- Argibideak eta agiriak:** Udaleko Bulego Orokorretan eta www.villabona.net web gunean.
- Aurketeke epea:** 15 egutegi-eguneko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita. Azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, epea hurrengo lanegunarte luzatuko da.

Villabonan, 2012ko urriaren 1ean. Alkateak.



Villabonako eta Zizurkilgo AEKko hainbat ikasle. HITZA

AEKn euskara ikasteko izena emateko epea oraindik zabalik dago

Aurreko ikasturteetan bezala, Zizurkil, Amasa-Villabonan, Iruran eta Anoetan klaseak egongo dira

Asier Imaz

AEKn ikasturte berria gaur hasiko da, ekainaren 21a bitarte. Matricula egiteko epea iragan astean amaitu bazen ere, AEKtik azaldu dutenez, oraindik izena emateko epea zabalik mantentzea erabaki dute: «Azken asteetan jende asko etorri da galdezka eta informazio bila, baina zuzenean izena ematera ere. Hau ikusita, eta nahiz eta epea amaiturik egon, norbaiten euskara klaseak jasotzeko asmoa baldin badu, oraindik atek zabalik ditu».

Eskualdeko AEKren egoitza Andoainen dago, baina klaseak Amasa-Villabonan, Zizurkil, Iruran eta Anoetan emateko ez dute inongo arazorik AEKkoek, aurreko urteetan egin bezala. Eskualdeko biztanleek, beraz, gertutik gertura euskara ikasteko aukera izango dute. Horretarako, lau herri haueko udaletxeetara joatea nahiko da, informazioa eskatzera edo izena ematera. Eskualdeko egoitza nagusiarekin harremanetan jartzeko, andoain-goak@aeek.org helbidera idatzi daiteke, edo 943 59 17 04 telefono zenbakira deitu behar da.

AEKn euskalduntze maila guztiak eskaintzen dira. Bertatik azaldu dutenez, lehen, bigarren eta hirugarren mailako hizkuntza eskakizunak prestatzeko klaseak ere badituzte, EGAKo azterketaz gain: «Pasa den ikasturtean, azterketa ikasleen gehien-goak gainditu zuen».

Euskara ikasteko erraztasun guztiak gutxi izaten direla diolaraztat, autoikaskuntza zerbitzua aipatu behar da. Izan ere,

euskara ikasteko beste modu bat antolatu du AEKk: «Autoikaskuntza zerbitzua esaten dugunean, askori ordenagailua etortzen zaio burura, baina ez da horrela, ez dauka zerikusirik. Autoikaskuntza zerbitzuan ikasle bakoitzari tutore bat izendatzen zaio, eta astean behin, ordu erdiz elkar-tzen da berarekin». Zalantzarantz gaitzeko baino etxeko lanak emateko elkartzen dira ikaslea eta tutorea: «Hamabost egunetarako lanak jartzen dira bilera horretan, eta tutore horrek, ikaslearen ikas prozesua jarraituko du». Zailtasunak, erraztasunak, arazoak non dauden... aztertuko dituzte bien artean. Horrez gain, autoikaskuntza zerbitzuan dauden ikasle gehiagorekin elkartzeko, astean saio bat egingo dute guztiak elkarrekin, hau da, mintza saioa. Hemen ikasleak, bere moduko beste ikasleekin euskaraz hitz egiteko eta esperientziak partekatzeko aukera izango du.

→ Laburrak

Malkarren bazkaria joateko txartelak salgai

AMASA-VILLABONA > Malkar Aisialdi Taldeak aurten 25 urte betetzen ditu, eta urriaren 20an urteurrena ospatuko dute. 09:00etan Zatorran mendira joango dira, eta 13:00etan mezetara. Ondoren, poteoa egingo dute, 14:30ean bazkaria joateko. Triki poteoarekin amaituko dute ospakizuna. Bazkari-rako txartelak gaur, ostiralean eta hilaren 10ean egongo dira salgai, 18:00etatik 20:00etara, Malkarren egoitzan.

Udal aparkalekuen eta trastelekuen erabilera

ANOETA > Udalak bederatzik aparkaleku eta bi trasteleku erabiltzeko aukera emango die herritarrei. Aparkalekuak Iturtxulo kalean daude, 4 eta 6 zenbakietan. Guztira bederatzik plaza 74 urtez erabiltzeko aukera emango du udalak. Trastelekuak, aldiz, Iturtxulo kaleko 1 eta 2 zenbakietan daude. Hauen erabilera ere 74 urterako izango litzateke. Aparkalekuen eta trastelekuen inguruko informazioa nahi duenak, edo erabilerarako izena eman nahi duenak, Anoetako udaletxera joan behar du, edo 943 65 12 00 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango du.

Irudia > Amezketa



'XALTON' OMENDU DUTE

Joxe Antonio Zabala *Xalton* omendu zuten igandean Amezketan, Zazpi Iturri pilota eskolaren alde 37 urtetan egindako lanagatik. Pilota partidak, sariak, bazkaria, sari gehiago... omenaldi xume bezain hunkigarria jaso zuen amezketarrak. Herritarrekin batera pilota eskolako hainbat belaunaldi elkartu ziren omenaldian, eta Herriarte-ko Txapelketa irabazi zuteneko ere gogora ekarri zuten, lehen eta oraingo argazkiak parean jarri. HITZA



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Urriak 7 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Asefa Estudiantes
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



Antonio Alustiza ◊ Artzaina

‘Ttiki’-ren laguntzarekin hirugarrenez lortu berri du Oñatin txapela janztea txapelketa garrantzitsuenean; bere alaba ‘Bat’-ekin ari da orain entrenatzen, ama erreterioa hartzeko sasoian sartua baita.

«Nahikoa lan egin du ‘Ttiki’-k, beraz, erretiro lasaiarekin utziko dut»

Iñigo Terradillos Areso

Datorren urteko abuztuan izango da berriro ere lehian Antonio Alustiza aresoarra. Orduan hasten da artzain txakur txapelketen denboraldia. Azken urteetan bidelagun izan duen *Ttiki*, ordea, ez du aldean izango, ez, behintzat, lehiatzeko moduan ez badago. Erretiroa hartzeko garaian dagoen zakurrarekin lortu berri du hirugarrenez jarraian Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa, eta Nafarroako zazpi txapel eta Euskal Herriko bat ere jantzi ditu bere lan onari esker.

Txapel ugari jantzi dituzu Ttiki-rekin.

Oso gustura nago dudana palma-resarekin, eta *Ttiki*-ri esker lortu-

takoekin. Uste dut oso zaila izango dela beste zakurren batekin emaitza hauek errepikatu ahal izatea.

Datorren denboraldian ere ariko al da ardiaren atzetik?

Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketan datorren urtean lehiatzeko txartela lortua du, baina, *Ttiki* ez badut lehiatzeko moduan ikusten ez dut eramango. Nafarroako txapelketara, behintzat, ez eramatea erabaki dut.

Zein zakurrekin hartuko duzu txapelketetan parte?

Dena ongi badao, Nafarroakoan bere kumearekin, hau da, *Bat*-ekin hasiko naiz lehiatzen.

Nolako zakurra da? Amaren maila bera emango duela uste al duzu?

Hiru urte ditu, gaztea da, indartsua eta lanean hasteko gogotsu dagoela ikusten dut. Dena den, ez nik eta ez inork ere ez du jakiterik nolako aterako den, amaren adinako maila emango duen, alegia. Gurasoak onak izanagatik ez du esan nahi seme-alabak ere onak izango direnik. Hori gizakietan ere antzekoa da. Baina, nire irudipena da amak egindakoa ez duela errepikatu ahal, oso zaila baita. Eta asmatu egingo dut, gainera. [kar, kar]

Hasita al zaude berarekin entrenatzen?

Bai. *Bat*-ekin ari naiz entrenatzen orain.

Nola entrenatzen da zakurra?

Entrenamendua urteko lana da. Txapelketari begira, banderekin eta abuztua gerturatuz ahala hasten gara entrenatzen. Gainerakoa, urtean zehar aritzen naiz lanean ardiekin. Aginduak behar bezala betetzen ikasteko egunero egin behar duzu lan.

Non dago zakurrak zure aginduak zorrotz betetzea lortzeko gakoa?

Zakurrarekin asko hitz egin, nik agintzen diodana egitea lortu arte. Ez dago modu berezirik.

Artzainaren eta zakurraren arteko erlazioak estua beharko du izan.

Hori oso garrantzitsua da. Lan hau egiteko jendea iruditzen zaio nahikoa izango dela pare bat hilabetetan entrenatzearekin, baina ez. Esan bezala, urte osoan zehar zakurrarekin egindako lana da. Urte hauetan guztietan zakurrak ezagutu egiten zaitu, berarekin zaude egunero, pertsona bat bestearrekin egoten den bezalatsu.

Elkar ondo ezagutzen duzue, beraz, Ttiki-k eta zuk.

Bai. Urte asko daramatzagu elkarrekin. Txikia zela ekarri nuen Bizkaitik, lagun batek emanda. Nik ederki atzematen diot *Ttiki*-ri noiz dagoen nazkatuta nerekin. Aldiz, ni umore txarrean nagoenean ere oso azkar sumatzen du berak. Batak bestaren aldartea segituan atzematen du.

Erretiroa hartzearekin penatu egingo da agian zakurra.

Ez dut uste. Orain gustura asko ibiliko da. Nik oraindano emian dizkiotan aginduak ez dizkiot emango, lasai utziko dut gauzak



I. TERRADILLOS

bere kabuz egiten. Lan handia egin du, beraz, erretiro lasai batekin utzi behar du.

Aurretik, beste zakur batzuekin lehiatu zara txapelketetan.

Bai. 20 urte baino gehiago daramatzat lehiaketetan parte hartzen. *Ttiki* laugarren zakurra dut. Lehendabizikoarekin Nafarroako txapelketa bat irabazi nuen, bigarrenarekin bi, hirugarrenare-

«Artzainak eta txakurrak segituan sumatzen dugu bata bestearen aldartea»

«Erlazio handiak egiten dituzu txapelketetan, oso polita da»

kin hiru, eta *Ttiki*-rekin zazpi txapelketa.

Nolatan hasi zinen Ttiki-rekin lehiatzen?

Ttiki-rekin halabeharrez hasi beharra izan nuen, aurrekoak kale egin zidalako. Bi urtetan txapel-dun izan zen zakur gazte bat utzi beharra izan nuen, kasurik egiten ez zuelako. Etxean ginenean ederki egiten zuen, baina, txapelketara iritsi, eta kale. Beraz, aldizko beharra izan nuen.

Artzain txakur txapelketetan parte hartzea nola animatu zinen?

Lantegi batean egiten dut lan, eta hango lagun batek animatu ninduen parte hartzea. Hasieran gehiegi prestatu gabe joaten hasi nintzen, baina pixkana gustatuz joan zitzaidan, eta gero eta gehiago prestatuz eta entrenatuz hasi nintzen. Lagun hark animatu ez banindu ez nintzateke txapelketetan ariko. Gaur egun asko gustatzen zait honetan aritzea, eta uzten dudan egunean, penaz utziko dut. Erlazio handia egiten duzu txapelketetako jendearekin eta artzainekin, oso polita da.

Lantegi batean lana egiten duzu, baina artzain ere bazara.

Bai. Gure etxean betidanik ezagutu izan ditut ardiak, eta beti aritu izan naiz lanean ardiekin. Egun ere badut artaldea. Anaiak eta biok aritzen gara eurekin.

Txapelketetan lehiatzeko adinako mailara nola iritsi zara?

Ez dut maisurik izan, nire kabuz ikasi dut. Galtzen hasi nintzen, eta pixkana akatsak zuzentzetik hobetuz joan nintzen.

Animoak jasoko dituzu herritarrengandik.

Bai. Denboraldia iristen denean, herrian askok animatzen naute, eta txapelketak irabaztean ere zoriontzen naute. Asko eskertzen da hori.

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZaren harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteberu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Artzaina nekazal-turismoa
Zimzaga, 45
HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tel: 943 642 337 / 655 721 834
www.nekatur.net/artzaina

Haremanetarako:
902-82 02 01 harpidetza@hitza.info

hitza

Pasa den urtean bildutako diruaren erdia lortu da uso postuen enkantean

Aresoko Udalak hutsik geratutako postuengatik eskaintzak egiteko aukera ostiralera arte zabaldu du

Iñigo Terradillos Areso

Uso postuen bigarren enkantea egin zuten pasa den larunbatean, Aresoko udaletxean. Postuak behin betiko izaeraz esleitu geroz zuten xede enkanteak, baina, inoiz gertatu ez bezala, hainbat postu hutsik geratu ziren. Horrez gain, iazko enkantean bildutako diruaren erdia lortu du Aresoko Udalak aurtengoan.

Ondoioz, espero baino «kaxkarragoa» izan da aurtengo uso postuen enkantea. Pasa den urtean bezala, Urteaga mendian kokaturiko 27 postu atera ziren enkantera. Horiak, kokapenaren eta bakoitzaren ezaugarrien arabera, hiru multzotan banatu zituzten. Hala, 150, 300 eta 600 euroan zehaztu zituzten postuen hasierako prezioak.



Pasa den larunbatean egin zuten bigarren enkantea udaletxean. HITZA

Bada, lehen enkantea, sesteoa eta bigarren enkantea eginda, postu batzuk esleitu gabe geratu dira. Ur Alguero Aresoko alkateak adierazi bezala, «ez da sekula hori gertatu». Enkanteetara, ohi baino ehiztari gutxiago joan da, eta ondorioz, gutxiago ordaindu da postuengatik, eskaintzak ez direlako handitu aurrekoetan adina. Algueroren arabera, krisia

izan daiteke arrazoietakoa bat. «Horrez gain, gero eta ehiztari gazte gutxiago dago, beraz, ehiztariak adin batera iristean kasu askotan ez dute jarraipenik, eta ondorioz, urtetik urtera kopurua txikiagoa dela nabari da», dio.

Ostiralera arte aukera

17.059 euro bildu zituzten pasa den urteko enkantean. Aurten,

berri, 8.000 inguru. Esleitu gabe geratu diren ehiza postuetan denetarik daude, hau da, hiru multzoetako postuak aurki daitezke, merkeenak, tartekoak eta garestienak. Aresoko Udalak beste aukera bat ematea erabaki du, eta ostirala bitarte izango dute ehiztariak hutsik geratu diren postu horietako bat esleitu aitzateko. «Ehiztariak gutunazal itxian egin ahaliko dute eskaintza, eta gutxienez hasierako prezioaren %90 eskaini beharko dute, %10eko beherapena dute, beraz», adierazi du Aresoko alkateak.

Urteaga mendiko posturen batean ehizatu nahi dutenek etzi, 12:30ak arte izango dute hutsik geratu diren postuengatik eskaintza egiteko aukera. Eskaintza hobereana egiten duenarentzat izango dira postuak.

Aresoko Udalak enkantearen emaitza «kaxkarrak» zertxobait hobetzea lortu nahi du erabaki honekin. Izan ere, zuzenean eragiten du honek urteko aurrekontuetan, eta hemen bezala, beste hainbat arlotan ere aurreikusitako baino gutxiago ari da jasotzen.

Etzi izango da Ibarra Guraso Eskolan izena emateko azken eguna

I. Terradillos Ibarra

Ibarra Udalak eta Uzturpe ikastolak antolatuta, Guraso Eskola hasiko da urriaren 8an. Parte hartu nahi duten gurasoek etzi dute matrikula egiteko azken eguna. Gizarte zerbitzuetan egin beharko da, astelehenean ostirala, 09:00etatik 14:00etara. 2101 0043 1400 0008 9243 kontu korronte zenbakian 60 euro sartu beharko dira, kontzeptuan izen abizenak eta *Guraso eskola 2012-2013* jarriz, eta ordainaria matrikula egite-erakoan eraman.

Nerea Mendizabal psikopedagogoa eta gizarte hezitzailea izango da guraso eskolaren arduraduna. Teoria, ariketa praktikak eta gurasoen esperientzien elkar trukatzea landuko dute, «guraso izateko ikasteko». Hilean bi orduko saio bat emango dute, urritik maiatzera bitarte. Informazio gehiago nahi duenak 943 67 04 15 edota 943 67 12 99 zenbakira hots egin beharko du.

Diru laguntzak emango dituzte euskara ikasten aritu diren herritarrentzat

Matrikularen %50 itzuliko zaie eskatzaileei, eta langabetuen kasuan, berriz, %100

I. Terradillos

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei diru laguntza ematen die. 2011ko irailaren 1etik 2012ko abuztuaren 31ra egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dituzte diruz, %50ean eta langabetuen kasuan, %100ean.

Diru laguntza eskatu nahi dutenek etzi izango dute azken eguna. Iparraldeko Mankomunitateko erregistroan edo Leitzu edo Aresoko udaletxean aurkeztu beharko da. Diru laguntza jaso ahal izateko egindako ikastaroen gutxiengo asistentzia %80koa izango da, eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herrietako batean erroldatuta egon beharko du eskatzaileak.

Zazpi kultur lantegi izango dira aukeran denboraldi berrian

Urriaren 10era arte eman ahaliko da izena; familia ugariak %50eko hoberia izango dute, eta gazteek %10ekoa

I. Terradillos Ibarra

Laster hasiko da Ibarra kultur lantegien denboraldi berria. Aurtengoan zazpi tailer izango dira aukeran. Horietakoa batean izena eman nahi dutenek urriaren 10era arte izango dute aukera. Ibarra Benito Izagirre kultur etxean egin ahaliko da matrikulazioa, goizez, 10:00etatik 13:00etara edota arratsaldean, 15:30etik 20:30era. Gazte txartela dutenek %10eko hoberia izango dute, eta familia ugariak, %50ekoa. Informazio gehiago nahi duenak kultur etxera deitu ahaliko du, 943 67 03 99 zenbakira.

Urrian hasi eta maiatzean amaituko dira lantegiak. Sabel dantza ostegunetan izango da, 18:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 22:00etara; egur taila, berriz, asteartean emango dute, 18:00etatik 21:00etara; ehiztari tailerra ere asteartean izango da, 15:30etik 17:30era eta 17:30etik



Urtero errepikatzen den lantegietako bat ehoziriarena da. HITZA

19:30era; altzariak zaharberritu eta konpontzen ikasteko tailerra asteazkenetan izango da, 18:00etatik 21:00etara; pintura lantegia asteartean izango da 15:30etik 18:30era; eskulanen tailerra astelehenean eta asteazkenetan emango dute, 17:30etik 19:00etara; arropa konponteko

lantegia, berriz, ostegunetan emango dute, 10:00etatik 13:00etara.

Prezioari dagokionez, sabel dantza eta ehoziri lantegiaren matrikula 136,78 eurokoa izango da, eta gainerakoena, 170,16 eurokoa.

• ibaraldea@hitza.info

Ibarra Azoka eta Piparra azokan lanean aritu zirenak zoriondu ditu udalak

Aurtengo azoka «oso arrakastatsua» izan dela eta auzolanen jarraitzera gonbidatu ditu herritarrak

I. Terradillos Ibarra

Ibarra Udalak Ibarra Azoka eta Piparra azokan antolatzaile izan den Hauspoa elkartearekin batera lanean modu batean edota bestean aritu zirenak herriko talde, elkarte eta norbanakoei «zorionik beroenak» eman dizkie.

Udaletik diotenez, herriaren erakuslehi «bikaina» den azoka urtetik urtera indartzeko esfortzu handia egiten da. «Herritar askok borondatez egiten du lan eta guztiak elkarlanean arituz gauzatzen da». Aurtengo azokak «marka guztiak» hautsi dituela nabarmentzen du udalak: «Jende ugari izan da, sekula baino postu gehiago eta jarduera eta gune berriak». Aurrerantzean ere herritarrek elkarlanean eta auzolanen, ekimenak antolatzen jarrai dezaten animatu ditu udalak.

Itzea Urkizu

Mintzalagun moduan bere burua aurkezteak lagunak eman dizkiola dio Mari Angeles Zubillaga tolosarrak, eta euskara jakitearen eta plazaratzearen kontzientzia falta dela oraindik. Amaia Doyague, berriz, Galtzaundiko Mintzalaguna egitasmoko arduraduna da, eta biek ala biek duela pare bat urte ezagutu zuten elkar. Aitzol Udal Euskaltegia hasi zen, orain sei urte, mintzalagunaren egitasmoarekin, eta aurten, hirugarrenez antolatu du Galtzaundik euskara plazaratu eta normalizatzea helburu duen egitasmoa.

Zer moduz doa mintzalagunaren kanpaina?

Amaia Doyague: Irailean egin dugun lana, batez ere, aurreko urteko taldeak eta antolatzea izan da. Eta, momentuz behintzat, ondo doa eta zerrendatxo osatu dugu jada; 40 lagun inguruk izena eman dute. Gainera, urtean zehar ere ez dizkiogu atean inori ixten, eta izen-ematea zabalik izaten da. **Besteak beste, euskararen normalizazioa iritsi nahi duzue. Aurrerapausoak nabaritzen al dituzue?**

A.D.: Bai, ikaragarria da. Aurten goa hirugarren urtea izango da, eta parte-hartzaile batzuegan bereziki, sekulako aldea igartzen dut nik. Gainera, eurekin kalean topatu eta lehen hitza euskaraz egiten dute. Harrigarria da duten etorria, eta asko eskertzen da. Hauetariko asko, noizbait euskaltegian egondakoak dira, eta esaterako, gramatika eskoletan asko aritu direnak; eurek, ordea, erabiltzea behar dutela diote, trebetasun hori hartzeko. Eta honetarako, mintzalagunarena oso egitasmo egokia dela uste dut.

Eta zein da, oro har, izena ematen dutenen profila?

A.D.: Euskaltegian ibilitakoak dira batzuk, eta nolabait han ikasitakoak osatzeko etortzen dira. Baina bestela ere, familia duen jendea izaten da, oro har; seme-alabekin nahiz bilobekin euskaraz aritzea interesatzen zaielako.

Eta ikasteko jendea animatzen den modu berean animatzen al dira hiztun moduan?

A.D.: Egia esan, ikaragarria da hiztunen zerrendan dagoen euskal-



HITZA

Amaia Doyague eta Mari Angeles Zubillaga

Galtzaundi euskara taldearen Mintzalaguna egitasmoko arduraduna da bata, eta hiztun bolondresa bestea. Euskarak kalean bizirik jarraitzearen garrantziak elkartu zituen duela bi urte.

«Euskarak behar du kaleratzea eta plazaratzea, abestiak dioen moduan»

dun kopurua. Galtzaunditik gure bazkideei informazioa banatzen diegu, eta oraingo zortzi talde osatu ditugun arren, beste zazpi pertsona inguruk izena eman dute euskal hiztun moduan, laguntzeko; jendea laguntzeko gogo da, beraz.

Eta zu, noiz hasizinen hiztun moduan parte hartzen?

Mari Angeles Zubillaga: Ni Aitzol Udal Euskaltegia hasi nintzen. Duela sei urte inguru, artean lanean nintzela, egitasmoaren inguruko berriren bat irakurri nuen. Betidanik sentitu dut euskararen alde lan egiteko gogoia, eta beharra ere ikusten nuen. Horrela be-

raz, gogo horrekin, nere buruari esan nion, erretiroa hartzen nuen izena emango nuela hiztuna izateko. Horrelaxe hasi nintzen, eta datorrena laugarren urtea izango da niretzat.

Nolako izaten da lehen kontakua?

M.A.Z.: Nire kasuan, euskaltegira joan nintzen, eta han, nire adin-tsuko taldea prestatu zidaten. Taldeko bat donostiarra zen, eta ez nuen ezagutzen; beste bat, berriz, Tolosatik ezagutzen nuen, betidanik. Lehen urtea bi horiekin egin nuen, eta ia hirurekin aritu nintzen; baina hirugarren honen kasuan, euskara zertxobait ulertzen zuten arren, eta guraso euskaldu-

nak zituen arren, oso gaizki moldatzen zen hizketarakoan. Orduan, birekin ordu betez elkartzen nintzen, eta hirugarrenarekin bakarrik aritzen nintzen, berak aurrerapauso handiagoak eman zitzaizkidan. Baina oinarririk ez baldin badago, ezinezkoa da ezertara iristea.

A.D.: Bai, guk hori jartzen dugu kanpainako esku-orrietan, izan ere, ez da ikastegi bat; erabilera lantzeko beharrezkoa da zerbait jakitea.

M.A.Z.: Oinarririk ez izateak beste- en erritmoa ere moteltzen du.

Nola aukeratzendituzue hizketaldietarako gaiak?

M.A.Z.: Hasi nintzen urtean haiteskundeak zirela uste dut, eta ideia bertsuak genituen guztiok; errazagoa izan zen, beraz, gaiak aurrera ateratzea. Hainbat ideologiakoak elkartutakoan ere, edozein gai aukeratzeko dugu, normalean eguneroko kontuak: arropa, jakiak, errezetaren bat, ... Hamaita kontu sortzen dira eta ez gara isiltzen! [barreak].

Azkenean, halako konplizitatek sortuko da zuen artean.

M.A.Z.: Bai, bai. Ikaragarria da, eta oso lagunak egiten gara eta oso gustura ibiltzen gara.

Gomendatuko zenuke, beraz, mintzalagun izateko izena ematea.

M.A.Z.: Bai, noski! Gomendatu bakarrik ez, bultzatu ere bai. Euskarak behar du kaleratzea eta plazaratzea, abestiak dioen moduan. Oso baztertuta eta zokoratuta egon da, eta oraindik ere, kon-



Euskaldunak ere, euskaraz jakin gabe, herren daude»

MARI ANGELES ZUBILLAGA
Mintzalaguneko hiztun bolondresa

tzientzia asko falta da; ez dago behar adina kontzientziarik, hori behar bezala aurrera eramateko. Horregatik, esparru honek zabalitzen eta indartzen joan behar du, eta euskara aurrera atera behar dugu. Noski, nik hau oso argi daukat, etxean ere horixe bizi izan dudalako. Baina konturatu egin behar dugu, euskara gure hizkuntza dela; eta gure hizkuntza denez, gure kulturaren oinarri eta ardatza ere badela euskara. Izan ere, hizkuntza bat galtzen baldin bada, kultura hori ere oso herren geratzen da. Eta are gehiago: euskaldunak ere, euskaraz jakin gabe, herren daude. Askok esango dute, «bai, ni euskalduna naiz», baina ez dakite euskaraz; zer euskaldun mota da hori?

Bi aldeetakoentzako gomendagarria da, beraz.

M.A.Z.: Bai. Euskaraz ez dakitenei ere gomendatuko nieke, oso aberatsa baita edozein lekutara joan ere euskaraz ari direla, ulertzea eta hitz batzuk egitea.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile


**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

XVI. Argazki Lehiaketa



EPAIMAHAIAREN ERABAKIAREN ZAIN

Atzo bukatu zen XVI. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea, eta orain epaimahaiko kideen txanda da. Erabakia ostiraleko egunkarian jakingo da, izan ere, zortzi argazki finalistak kaleratuko dira egun horretan, eta harpidedunek urriaren 12a arte

bozkatu ahal izango dute zein den gehien gustatzen zaien irudia. Gaurko argazkiak goitik behera, eta ezkerretik eskuinera, Jon Aizpuruak, Torbiok, Eneritz Urkolak, Ion Alberdik eta Aitziber Errazkinak bidalitakoak dira. J.A.-T.-EU.-IA.-A.E.

Agurrak



Urte askoan!

Ane Lopetegi Arrue (Tolosa). Gaur 5 urte! Zorionak eta muxuak etxeko guztien eta bereziki Jon eta Aitorren partez.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairitzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Udal gobernua ba-tzar irekia egingo du gaur, 20:00etan, Topic-en aurrekontuen inguruan hitz egiteko.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografia* eta Tolosa Gasa eta Tolargik 2013ko egutegia osatzeko erabiliko dituen argazkien erakusketa, Aranburun.

Laster...

planik onenak egunero, bertatik bertara!

Egun-pasak familiarekin, jatetxeak, abentura, kirol ikuskizunak, antzerkia, estetika... merke-merke eta eskura

Abantailak izena ematen duten lehenengoentzat

Urriaren 31 baino lehen izena ematen baduzu, parte hartuko duzu Kanaria uharteetara astebete doan joateko zozketan.

Eroski bidaiak agentziaren eskutik
EROSKI bidaiak
mercei doan

www.mauka.eu

mauka: erraz lortzen den gauza oso onuragarria. Haruari Hitzari Enziklopedia